

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak Europako Eguna ospatuko du Pirinioetako Lan Elkarteari buruzko jardunaldi batekin

Iruñeko azoka batek salgai jarriko ditu Akitania, Midi-Pyrénées, Languedoc-Rousillon, Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Andorrako produktuak

Martes, 08 de mayo de 2012

Nafarroako Gobernuak [Europako Eguna](#) ospatuko du aurtun [Pirinioetako Lan Elkarteari \(PLE\)](#) buruzko jardunaldi batekin, aurtengo edizioa erakunde horretako Nafarroako lehendakarezekin bat etorritz.

Xede horrekin, Iruñeko Carlos III.a etorbideak Elkartea osatzen duten eskualde guztien nekazaritzako elikagaien azoka hartuko du: Akitania, Midi-Pyrénées Languedoc-Rousillon frantsesak; Katalunia, Aragoi, Nafarroa eta Euskadi espainiarrak eta Andorrako Printzerria.

Azokak hamabi karpa izango ditu: hamar karpatan nekazaritzako elikagaiak saldu eta dastatuko dira; beste batean, Pirinioetako Lan Elkarteak hura osatzen duten eskualdeei buruzko informazioa eskainiko du eta, azkenik, karpa batean haur eta helduentzako joko nahiz lehiaketak izango dira gaia PLEa hartuz. Azoka maiatzaren 9tik, asteazkena, maiatzaren 12ra, larunbata, bitarte zabalik egongo da 11:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:00ak arte.

Europako Egunak maiatzaren 9 guztietan 1950. urtea ekartzen du gogora; orduan, [Robert Schuman](#)-ek [proposamena](#) aurkeztu zuen nazioen artean bakea eta lankidetzaren gordeko zituen Europa antolatuta bat ezartzeko, bereziki Frantziaren eta Alemaniaren artean; ekimen hori egungo Europar Batasunaren hazia izan zen.

Europako Eguna duela urte batzuetatik ospatzen da Nafarroan zenbait ekitaldirekin. 2008an, harrera egin zitzaion une hartan Nafarroako unibertsitatearen batean ikasten ari ziren Erasmuseko ikasle guztiei; 2009, 2010 eta 2011n jardunaldia Alemania, Frantzia eta Italiari buruzkoa izan zen, hurrenez hurren.

[Pirinioetako Lan Elkarteak](#) duela hogeita hamar urtetik lanean dihardu Pirinioetako bi aldeetako lurralde, eragile ekonomiko eta kulturalen arteko trukeak errazteko asmoz, garraio, prestakuntza, ikerkuntza, ondare, garapen iraunkor eta beste arlo batzuetan hautemandako erronkei irtenbide komunak bilatzen.